

# B

BARREN

# Baserritar eta gazte

## Baserritar Gazteen Martxa Elgoibarrera helduko da urriaren 23an





# i10 i20 i30



**i10** | 5 plaza homologatu  
4 Airbag + Isofix  
iPod konezioa  
Isurpen békiko motorrak

**6.890** eurotik hasita

**i20** | 3 eta 5 ateko bertsioak  
EuroNCap-en 5 izar  
6 airbag + Isofix  
iPod konezioa  
Isurpen békiko motorrak

**7.775** eurotik hasita

**i30** | 6 Airbag + Isofix  
ABS + EBD + TCS  
MP3 audioa  
USB-iPod konezioa  
Aire egokitua  
Isurpen békiko motorrak

**10.325** eurotik hasita

## ESKANTZA HAU EZ DA BETIKO. GEURE AUTOAK, SEGURU ASKO BAI.

Oraindik garaiz zabitza 2000E planari probetxua ateratzeko eta prezio ezin hobean munduko markarik fidagarriena gidatzeko, Hyundai bat.



## Bakarrizketan zurekin

Urtebete. Segundoak luze joaten dira, minutuak ere bai, batzuetan. Egunak eta urteak, berriz, azkarregi gehienetan. Zure azken mezua makina bat aldiz irakurri dut joan zinenetik. Azkenekoa ez zenuen zuzen idatzi, eta akatsak lo antzean zeundelako izan zirela pentsatzen dut beti.

Zer moduz zaude, osaba? Hemen gauza gutxi aldatu dira. Eta nik hala nahiago. Gure herri zaharra Deba ibaiak zeharkatzen du oraindik. Egin barre, baina teknologia berrien aroan gaude, eta zuk gustuko dituzun arren, batzuetan beldur izaten naiz ni. Esnatu eta erreka bera ere beste nonbait egongo den beldur. Bizitzan egiaz garrantzitsuak diren gauzak hutsal bihurtzeraino menperatzen gaituzte-eta teknologiek. Esaldi horretan ondo erabili dut "menperatu" aditza, ezta? Behin baino gehiagotan esan zenidan euskara ez dela menperatzen, hitz egiten baizik. Baina gero barre ere egiten genuen, beste erdarek euskara menperatzen dutela-eta, hitz-jokoa eginez.

Gure herri zaharraz hizketan hasi naiz. Elgoibartik Maltzagaraino orkatila bihurritu gabe oinez joan gaitezke orain, osaba. Bide berria egin baitute. Gustatuko zaizu, seguru. Sallobente inguruko belardi eta baserriak ere ez dira asko aldatu. Bertan nagoela, autoreen baten zaratak giroa zapuztu ezean, zuri bezala, Elgoibar munduko txoko maitagarriena iruditzen zait niri ere.

Zertan ari naizen orain? Badakit-eta hori galdetu nahi didazula... Lehengo lepotik burua, osaba. Euskararen munduak

liluratuta. Orain, ordea, beste batzuegana jo behar izaten du zalantzak argitzeko. Hala ere, berriro azaldu beharko didazu, noiz den egoki "tomate erdi", eta noiz "tomate erdia". Badakizu, gauza bat galdetu eta zu erantzuten ari zarela hurrengo galdera formulatzeko ohitura izaten dut.

Herrian omenaldia egiten ari zaizkizu, osaba. Lan eskerga egin du Udalak. Herritarrek makina bat mezu bidali dizkizute. Eta nik horrenbeste gauza daukat zuri kontatzeko, gutun hau idaztea pentsatu dut. Pena bakarra daukat: omenaldian ez dugu bat egingo. Dena den, badakit elkar ikusiko dugula...

Ainhoa Lendinez Garate



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:  
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Pena bakarra daukat:  
omenaldian ez dugu bat egingo"**

**GOTZON  
GARATERI**

**eginiko omenaldiko  
irudiak jarri ditugu  
web gunean**



**Egin  
klik  
eta  
ikusiko  
duzu**

**www.elgoiBARREN.net**

**ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA**



# TXORI BEGIZ

“Ezer ez da berdin”, esaten du Hertzainak taldearen kanta batek, eta ez zaio arrazoirik falta. Ezkerretik, eskumatik, behetik ala goitik begiratuta, gauzak asko aldatzen dira. Gaur Elgoibarren beste irudi bat ikusteko aukera izango duzue. Kale zulotik irten, eta gure herria txori begiz nolakoa den erakutsiko dizue **BARRENEk**.

Ainhoa Andonegi



Manu Sanchez, abionetan.

**M**anu Sanchez elgoibartarra pilotua da. Urte asko daramatza han eta hemen hegaldiak egiten, baina, azken urteotan, pilotu lana beste zaletasun batekin uztartzen du; argazkilaritzarekin. Abioneta hartzen duen bakoitzean argazki kamera eramaten du soinean, eta airetik gauzak oso diferente ikusten direla aitortu du.

Air Quality piloto eskolan egiten du lan. Hegaldietako irakaslea da, baina enpresak berak erretratuak egiteko zerbitzua ere eskaintzen du. Lan batzuk, beraz, enkarguz egiten ditu Manuk, baina bere esanetan, “nire gustuko argazkiak egiteko ere aprobeztatzen dut hegaldia”. 3.000 oineko altueran ibiltzen da normalean, hau da, lurretik kilometro batera, gutxi gorabehera. Hala ere, 9.000 oinetara ere iritsi izan da noizbait, erretratu

konkreturen bat egiteko. 14.000 oinetara arte igotzeko aukera ematen dio abionetak, baina altura horretan ibiltzea arriskutsua dela adierazi du, oxigeno faltagatik.

Bakarrik joaten da gehienetan, eta ez dauka pilotu automatikorik. Berak kontatu du nola moldatzen den erretratuak egiteko: “Pedalak oinekin kontrolatzen ditut, eta mandoa belaunekin. Beharrezko inklinazioa ematen diot hegazkinari, leihoa zabaldu eta argazkia egiten dut”. Sekula ez du sustorik eduki: “Noizbait txoriren bat sartu izan da motorrean, baina berehala birrintzen dira”.

Betidanik izan du gustuko erretratuak ateratzea, baina “lurretik erretratu onak egitea ez dut sekula lortu, beraz, airetik egiten hasi nintzen”, esan du barre artean. Kostaldean eta mendien erretratuak gustatzen zaizkio, batez ere, baina airetik egin duen

erretratu onena zein den galdetzean, bere argazki onena oraindik egiteko dagoela erantzun du: “Deba eta Zumaia arteko flysha, iluntzean, eguzkia sartzen ari dela, oso polita izan daiteke, edo artalde bat zelai berde baten erdi-erdian ere argazki interesgarria da”. Oraindik, baina, ez du horretarako aukerarik eduki.







Manu Sanchez eskuinean, abioneta hartzeko prest.



Gabriel Krutzelaegi eta Pedro Muguruza inguruneak.

### Bere ametsa

Noizbait zalantzak izan dituen arren, ikasleek bere lana estimatzen dutela badaki Manuk, eta horrek ematen dio lanean jarraitzeko ilusioa. Hala ere, bere ametsa hegazkin-konpainia handi bateko pilotua izatea da: "Iberiarren A340 hegazkinarekin, esate baterako, Brasilerara bidaiak egitea izugarri gustatuko litzaidake", esan du pilotu elgoibartarrak.



Ezkerrean Mintxetako igerilekuak eta futbol zelaia. Goian, Santa Ana kaleko errotonda berria eta Ubitarte Buruko etxe berriak.



**AIRETIK ATERATAKO  
ERRETRATUAK SALGAI!**

Eskatu zeurea!

Informa zaitez

943 744 112 telefonoan.





## Baserritar gazteak bat eginik geroari begira

**Baserritar Gazteen Martxa deitu dute urriko laugarren astebururako. Azpeitian hasiko da hilaren 23an, eta Durangoraino helduko da 25ean. Lehen etapa Elgoibarren amaituko dela eta, herriko hainbat gaztek bat egin dute ekimenarekin. Martxak, berez, baserritar gazteak elkartu nahi ditu, eta kalera atera. Azken batean, orain arte egin gabeko lana dela uste dute antolatzaileek, Akuilu taldeko kideek. Baserriaren egoera beltza izan arren, baikortasunez begiratu nahi diote geroari: “Baserrria sustatu behar da eta baserritar gazteak behar ditugu”.**

**B**aserritar gazteak elkartzeko, oinezko martxa berezia izango da urriaren 23tik 25era. Azpeitian hasiko da lehen etapa, eta Elgoibarreraino helduko da. Aste honetan bertan, martxa dela eta, herriko hainbat gaztek bat egin dute martxari babesa eta laguntza emateko.

Traktore baten atzetik sartuko da Baserritar Gazteen Martxa Elgoibarrera, Azkaratetik, hilaren 23an, 19:00etan. Ordu erdi geroago, mahaingurua izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan: *Baserritar gazteen esperientzien elkartrukea* izenburupean, Euskal Herri osoko nekazariak euren gorabeherak partekatuko dituzte. Hitzaldia martxako parte-hartzaileentzako ez ezik, nahi duten herritar guztientzako izango da. Martxako kideek Merkatu Plazako goiko solairuan lo egingo dute, eta hurrengo egunean Eibarrerantz joko dute, 10:00ak aldera.

Nekazaritzaren egoera zaila izan arren, baserrian hainbat gazte badirela erakusteko asmoa dauka martxak. Horrez gain, elkartu egin nahi ditu bai familiaren baserrian diharduten gazteak, bai nekazari munduan instalatu direnak eta instalatu nahi dutenak.

“Baserritar gazteak batzea garrantzitsua dela uste dugu, bakoitza bere kontura dabilenak. Orain arte egin gabeko lana da”, adierazi dute antolatzaileek, Akuilu taldeko kideek. Nekazari gazteak elkartzea ezinbestekoa da Akuiluren iritziz, elkarri laguntzeko eta elkarren arteko esperientziekin aberasteko.

Horrez gain, gizartearen inplikazioa eskatu du Akuiluk. “Egoera beltza da, baina ez da geure ardura bakarrik, gizarte osoarena baizik”. Gaur egungo gizarteak baserriari bizkarra ezin diola eman aldarrikatzen dute. “Elikagaiak egunero jaten ditugu, eta horren ardurak denona izan behar du”.

Baserrria sustatu egin behar da, Akuiluren iritziz. “Horretarako, baserritar gazteak behar ditugu”. Baserrria eta nekazaritza sustatu daitekeela uste dute. Horregatik, baikortasunez begiratzen diote geroari.



*Elgoibarko hainbat gaztek eta baserritarrek bat egin dute ekimenarekin.*

## Lurra eskuratzeko arazoak

**E**spekulazioa arazo handia da kaletik baserrira jo nahi dutenentzako. Hori dela eta, zenbait proposamen jarri ditu Akuilu taldeak mahai gainean. Jendartearentzat, esaterako, ideia hau plazaratu du, Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherean martxan dagoena: lur erosketak kolektiboak egitearena. Gazteren batzuek baserrian instalatzeko proiektu zehatz bat izanez gero, jendartearen sare bat osatu eta denon artean lurra erosiko litzateke, gazteari errentan lagatzeko, prezio duinean. Martxaren ostean, sistema hori jarriko du martxan Akuiluk, eta gazte bat instalatzeko erronka bere egingo du.

Bide horretatik, Akuiluren iritziz, ez da baserriaren salbazioa etorriko. “Benetako soluzioa erreleboia ziurtatzen bada etorriko da”. Horregatik egin die erakundeei dei berezia mendia kudeatzeko neurriak jarri ditzaten, eta zahar-gazteen arteko erreleboak gauzatzeko lagundu dezaten.



## Baserria biziberritu nahian

Hego Euskal Herriko gazte baserritarrek eta baserritar izan nahi dutenek osatzen dute Akuilu taldea. 2005ean sortu zen, Markinako Gazte Mugi jardunaldietan, arrantza eta nekazaritzari buruzko hiltzaldietan horren premia ikusi ondoren.

Akuiluk bere burua definitzeko honako esaldia darabil: "Baserria biziberritzeko gazteen arteko auzolana". Nekazaritza sektorean instalatzeko laguntza eskaini nahi die gazteei. Gazteak baserrian instalatzeko politikekin oso kritiko agertu dira Akuiluko kideak. Haien ustez, instalazioak gradualak izan behar du. Espezializazioa eta bitartekariak albo batera laga behar direla uste dute, eta dibertsifikazioa eta salmenta zuzena aldarrikatzen dituzte. Horrez gain, baserritar gazteei laguntzeko hainbat auzolan ere antolatu ditu.

"Baserria gogorra dela mitoa da", azaldu du Akuiluko kide batek. "Beharbada izan daiteke, baina horrek ez du zertan horrela izan behar. Ondo antolatzean dago gakoa. Bakarrik lan egitea esklabutza da. Horregatik, beste baserritar batzuekin elkarlanean jardutea garrantzitsua da", gaineratu du.

## Kontsumoa

Baserritarrak eta kontsumitzaileak elkarrekin antolatzea garrantzitsua dela erakutsi nahi dute martxan. Hilaren 23ko bazkalostean jardungo dute horren gainean. Izan ere, hainbat herritan kontsumo kooperatibak sortu dira, azken aldian. Ereduak ezberdinak dira, baina denetan dute harreman zuzena baserritarrek kontsumitzaileekin.

Kontsumitzaileek kuota ordaintzen dute, eta otarreak astero (edo hamabostean behin) hartzeko konpromisoa hartzen dute. Kasu batzuetan, baserri batzuk elkartu eta denen produktuekin eskaintzen dituzte otarreak.

## Egitaraua



Baserritar Gazteen Martxarako egitarauarekin kaleratu duten kartela.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Adar jotzea

Adar jotze baten eman nahi dizuet, eta nire eskubideen erreklamazio serio bat egin nahi dut.

2007ko apirilean ginekologoarekin egoteko hitzordua eskatu nuen, eta 2009ko irailaren 17rako eman zidaten. Bi urte eta erdira! Harritu egin nintzen.

2009ko irailaren 16an deitu egin zidaten, hitzordua bertan behera gelditzen zela esateko, eta deituko zidatela berriz beste egun baterako.

Beste bi urte eta erdi egon beharko ote dut zain? Zorte pixka batekin, europarrak garenez, bost urte barru izango dut ginekologoarekin hitzordua!

Nire eskubideen eta osasunaren aldeko erreklamazio serioa egin nahi dut, eta, eskaera bat egin: arrazionala den epe baten barruan, eman diezadatela hitzordu bat ginekologoarekin.

MJE ☞

### Kilometroetara autobusik ez Mendaron

Urriaren 4an Donostian egin ziren Kilometroetarako, Mendaroko udalak ez du autobusik jarri. Urtero antolatuta izan ohi du Gipuzkoan ikastolen alde ospatzen diren kilometroetarako autobusa. Aurten tren zerbitzu bereziak zeudela esan eta ez du autobusik jarri. Igandean Donostia inguruko herrietatik zerbitzu bereziak bazeuden, baina Mendarotik Donostiara eguneroko tren zerbitzua geneukan. Gainera, Donostia baino gertuago egin direnetan, Za-

rautz-Orion izan zirenean esaterako, autobusa izan genuen. Espero dut hurrengo urtean Pasaia-Lezon izango diren Kilometroetarako autobusa antolatzeara.

EO ☞

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelera datorren eskutitzik argitaratuko.

# Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12  
 Faxa: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04  
 E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegui, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Angel  
Bazterretxea

Oihana, telebis-  
tak, irratiak, egunkariak  
eta berriemaile guztiek, krisi eko-  
nomikoa dute zoritarrez euren berririk inportanteena aspal-  
di honetan.

Benetan kezkarria da gaur egungo egoera.  
Hala ere, kontatuko dizut gure gaztetako gertakizun bat.  
Gure kostaldeko herri batean, udazkeneko egun batean, botakar  
pilo bat harrapatu zuten itsasontziek.

### “Orain krisiak zapalduko gaitu, ala?”

A zelako poza etxe askotan. Egun hartako afaria prest baitze-  
goen botakar fresko-freskoarekin. Eta halaxe, familia batean, bes-  
teetan bezala, mahai inguruan jarri ziren etxeko guztiak botakarra  
jateko asmoarekin. Amak esan zien semeari eta senarrari: “Tira, da-  
nok mahiera!”

Eta hori esanda fuentekada bat botakar atera zuen mahaira. Eta  
jaten hasi zirenean seme batek amari esan zion: “Ama, olixua falta da  
botakar fuentian, nun dago olixua?”. Eta amak semeari: “Olixua, Julit-  
xikinean”. Julitxiki janari eta edariak saltzen zituzten denda bat zen.

Eta egun hartan eta beste askotan, botakarrak eta beste janari  
asko ez ziren gozatzen olioarekin. Eta hori ez zen egiten tipoa man-  
tentzeko, baizik gure etxeetan oliorik ez zegoelako. Oihana, orain-  
goari deitzen diote krisia?

Badakigu bizitzak aurrera egin duela eta egin beharko duela,  
eta ezin daitekeela konparatu lehengo eta oraingo bizitza. Baina ba-  
rren-barrenean kezka bera da lehen eta orain. Orduan, kostata atera  
ginen, eta, orain, krisiak zapalduko gaitu, ala?



Oihana  
Tarragual

Zapaltzen ez dakit, baina ondo ari zaigu le-  
poa estutzen krisi madarikatu hau.

Esan diezaietela bestela, France Telecom-  
ko langileei. Ikaragarria da gertatzen ari dena. 24  
personek egin dute bere buruaz beste azken ur-  
te eta erdian.

Azkena, 51 urteko gizon bat, ezkondua eta bi  
umeren aita. Eskutitz bat utzi dio emazteari. “Neure bu-  
ruaz beste egiteko erabakia hartu dut enpresako giro txarra-  
gatik”.

Gizon horrek sekulakoak pasako zituen enpresan, baina ezin la-  
na utzi, seme-alabei jaten eman behar...

Muturreko kasu bat da hau. Badakit. Baina krisi ekonomikoaren  
ondorioetako bat izan daiteke.

Urrutira joan gabe, gure ingurura begiratzen badugu, nork ez  
dauka lagun edo senideen bat langabezian dagoena? Inoiz ez ditut  
hainbeste gizon ikusi umeekin parkean edota erosketak egiten!

Eta gero, Espainiako errege-erreginak Mallorcan opor “xumea-  
goak” pasa dituztela esan digute. Surrealista erabat.

### “Lehengoak atera zineten eta oraingoak ere aterako gara”

Gutxiagorekin bizi gaitzkeela? Bai. Baina aberastu diren lau es-  
pabilatuk lasai egingo dute lo. Eta bitartean, gu, herritarrok, hi-  
poteka nola ordaindu pentsatzen... “Ezkontza horretara ez naiz jo-  
ango, aurten oporretara joateaz ahaztu...”.

Gosez ez gara hilko baina zuk diozun bezala kezka hor dago.

Portzierto, Don Angel, nire etxean arrainari ez zaio, ez oliorik, ez  
patatarik, ez ezer falta izan. Amatzok era guztietara prestatzen zigan,  
laban, errebozatuta, saltsan...

Lehengoak atera zineten eta oraingoak ere aterako gara, eta  
bestela, nire etxean esaten den bezala, jateko arraultzak eta patatak  
dauden bitartean...



Elgoibarko Udala



ELISKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO





**Aizkorri kalean sasitza handia dago:** “Aizkorri kale inguruko mendiak garbitu dituzte azken egunotan, baina aparkalekuan dauden sasiak ez dituzte moztu. Emakume batek hankak urratu ditu sasi horien ondorioz, eta mesez, garbitzeko eskatu nahiko nuke. Mila esker”.



**Herritar batek txalo bero bat eman nahi die San Migeleko korrika Igoera antolatu zutenei:**

“Ederra iruditu zitzaidan Txankakua ingurutik gora hainbeste jende saltaka ikustea. Segi horrela beste urte askoan”.



**Txalo bero bat Zubibai elkartekoei:** “Zubibai elkartekoek antolatuta, Urbiara egin genuen irteera Altolako bizilagunok joan zen domekan. Eguraldiak lagunduta, oso ondo pasatu genuen. Eskerrik asko antolatzaleei”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943-74 41 12


ESKERTZA

**EUGENIA JUARISTI SAN MARTIN**

(Sebastian Ansolaren alarguna)  
 “Mausitxa baserria”



*Udazkenean orbel bihurtuz  
 joan zara hostoen antzeko.  
 Gogorra da onartzea  
 gehiago ez zaitugula ikusiko.  
 Zure bizitzeko gogo eta kemena  
 ez ditugu ahaztuko.  
 Bizi garen artean, zu,  
 gure bihotzean betiko.*



2009ko urriaren 1ean hil zen 79 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# motor

gehigarria 09

Zenbat urte dira segur-tasun uhala sortu zela? Zer abantaila eskaintzen ditu 2000 E Planak? Zein dira ibilgailu berrien ezaugarriak? Teknologiak aurrera egi-ten du, eta ibilgailuen munduan ere hori nabar-mena da.

Gehigarri honetan motor arloko berrikuntza interesgarrienak jorratuko ditugu. Hona hemen auto bat aukeratzeko kon-tuan izan behar diren ezaugarriak. Ez galdu detailerik!



*Zatoz gure auto eta motorren  
aseguru eskaintza zabala ezagutzera*



**MAPFRE**



San Frantzisko, 40 - Tel: 943 74 05 82 / 943 74 14 04 - Faxa: 943 74 17 07

E-posta: [patxiza@mapfre.com](mailto:patxiza@mapfre.com)



## SEGURTASUN-UHALAK 50 URTE EGIN DITU

**M**ende erdian, auto istripuetan milioi bat lagunetik gora ez dira hil, segurtasun-uhalarri esker. Izan ere, bera da segurtasun-sistema pasiborik garrantzitsuena. Volvo PV544 automobilari jarri zioten estreinakoz segurtasun-uhala. 1959ko abuztuaren 13an eskuratu zuen erosleak, Suediako Kristianstad hiriko kontzesionario batean.

Nils Ivar Bohlin injineru suediarra, handik lau egunera, asmakuntza berriaren patentea aurkeztu zuen: hiru puntutan ainguratutako uhala. Hala ere, patentea laster liberatu zuten, sistema oso azkar hedatu zen mundu osoan. Gaur egun egiten diren automobil guztiek dute segurtasun-uhala. Horri esker, ia 13.000 lagun salbatu ziren Europako Batasunean.

Europako Garraio Segurtasunaren Kontseiluaren arabera, 4.300 heriotza saihestu zitezkeen ia, istripua izan zuten guzti-guztiek uhala erabili izan balute. Europako Batasunean, gidarien eta kopilotuen %90ek autoan uhala jartzen dute autoan sartzean, baina atzekoek gutxiago erabiltzen dute (%70).

Atzeko bidaiariek uharen gaitasuna gutxietsi egiten dute. Talka eginez gero, aurreko jarlekua jo dezakete, eta aurreko bidaiarientzako hilkortasun arriskua handitu dezakete.

Segurtasun-uhala lotzea derrigorrezkoa da Europako Batasunean. Dena den, badira ezberdintasunak: iparraldeko eta mendebaldeko estatuetan erabilera hedatuagoa dago; ekialdekoetan, berriz, errezelo handiagoa dute.

Derrigorrezkoa izan arren, bidaiari guztiek ez dute uhala jartzen. Vojtech Eksler adituaren iritziz, beharrezkoak dira bai puntu bidezko gida-baimena, bai bidezko kontrolak. Era berean, uste du auto gehiagok eraman beharko lituzketela sistema bereziak, norbaitek uhala ez erabiltzeagatik martxan jartzen direnak. Bere esanetan, gaur egun horrelakoak auto gutxi batzuk baino ez daramate.


Istripu kasuan uhala da segurtasun elementu pasiborik garrantzitsuena Ekslerren ustez, eta airbagak ezin du uhala ordezkatu.



**LAGUNMOBIL**  
C A R R O C E R I A S

Lantalde profesionala  
Ardura handiz egindako  
konponketak 1.000 m<sup>2</sup>-ko  
instalazioetan


Olaso Poligonoa • Tel.: 943 74 44 30 • Faxa: 943 74 44 36 • ELGOIBAR

 **ANAIK, S.L.**

**CITROËN**

Xixilion kalea, 4 - 1. pabillioia  
20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 747 352  
Faxa: 943 743 925

- ▲ Citroen zerbitzu ofiziala
- ▲ Txapa, pintura eta mekanika
- ▲ Ibilgailu berriak eta okasiokoak
- ▲ Gidaririk gabeko ibilgailuen alokairua







## 2000 E PLANA

**H**ona hemen 2000 E Planaren helburuak: ibilgailuen eskaria sustatu, autogintza sektoreko enpleguari eutsi eta automobil zaharren ordez gutxiago kutsatzen dutenak sustatu. Horrez gain, autonomia erkidegoek, Espainiako Gobernuak, autogileek eta saltzaileek sektoreari laguntza emateko irizpideak bateratu nahi ditu.

Planak M1 eta N1 kategorietako ibilgailuei laguntza zuzenak ematen dizkie. Batetik, laguntza zuzenak ematen ditu bidaiarientzako motor-ibilgailuak eskuratzeko, lau gurpiletik gorakoak. Bestetik, 3,5 tonatik beherako garraio-ibilgailuak erosteko laguntzak ere eskaintzen ditu planak. Eskuratutako ibilgailuak berria izan beharko du, edo bestela 5 urte baino gutxiago izan beharko ditu.



Onuradunak norbanakoak, autonomoak nahiz enpresa txiki eta ertainak dira. 30.000 euro baino gutxiago balio beharko du ibilgailuak, BEZ-IVA barne.

Laguntza jasotzeko, ezinbestekoa da ibilgailu zaharra txatarretara botatzea. Auto berria eskuratzeko, zaharrak gutxienez 10 urte izan beharko ditu, edo 250.000 kilometro. Bigarren eskukoa lortzeko, zaharrak behintzat 12 urtekoa izan beharko du.

Espainiako Gobernuak 500 euroko laguntza ematen du ibilgailu berria edo bigarren eskukoa erostearren. Autogileek edo inportatzaileek, berriz, 1.000 euroko laguntza ematen dute autoa lehen aldiz matrikulatzen bada. Autonomia erkidegoek gainontzeko kopurua jartzen dute. Laguntzok datorren urteko maiatzaren 18ra arte egongo dira indarrean.

**Garaje EGAÑA**

**Automobil konpoketa**

Pedro Muguruza etorbidea, 18 behea  
Tallerrako tel.: 943 740 198  
Tel. partikularra: 943 743 385 / 943 742 018  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



**Grua-Karrozeria URASANDI, S.L.**

24 orduz Grua Zerbitzua  
608 67 61 62

Daba kalea, 14 behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 743 400 / 943 744 489 - Mugikorra: 628 115 678  
Faxa: 943 742 593 - Grua bulegoa: 943 748 855



**%10 EKO BEHERAPENA\***

**AURREALDEKO KOLPEEN KONPONKETETAN**

**RENAULT SERVICIOS. ETORRI ETXERA.**

\* 03/12/31ra arteko eskaintza beheko abioetan aurrealdeko piezen konponketetan (aurrealdeko kolpe-leurgailuak, aurreko aleak, argien optikak, zarpak eta aurreko kapotak).

**RENAULT SERVICIOS** AUTOBERRI ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRUN - TOLOSA



## CHEVROLET

### CHEVROLETEK ETA REPSOLEK ELKARLAN-HITZARMENA SINATU DUTE ESPAINIAN AUTOGASAREN (GLP) ERABILERA SUSTATZEKO

GLP ibilgailuen gama osoa Espainian eskaintzen lehenengo marka izan da Chevrolet. AutoGas izenez ezaguna den erregaia eskuragarri dago Europan. Erregai hori erabiltzen duten 7 milioi ibilgailu daude dagoeneko errepidean. Abantaila ekonomiko ugari eskaintzen ditu, eta, beraz, gure artean ere erregai horren zabalkundea azkarra izango dela aurreikusten da.



Matrikulazio zerga berriak ibilgailu ekologikoenei egiten die mesede, eta gainera AutoGasaren (GLP) prezioa gasolioarena baino %50 txikiagoa da. Erregai honek bezeroari abantaila ekonomiko erakargarriak eskaintzen dizkio, Aveo modeloaren kasuan bezala, %40 aurreztu baitaiteke erregaitan. Bestalde, motorraren higadura baxuagoa da, matxura gutxiago ditu eta motorra iraunkorragoa da. Beraz, mantenua ere ekonomikoagoa da. Probatutako teknologia fidagarria da, eta erregai tradizionalen antzerako segurtasun mailak ditu; horrez gain, abantaila teknikoak eskaintzen ditu. AutoGasak gidatze suabe, isil eta bibrazioirik gabea eskaintzen du. Depositoak (50 litro inguru), ordeztu piezaren gunean kokatuta dagoenak, ez dio maletegiari espaziorik kentzen. Botoia sakatze hutsarekin, gasolinatik AutoGasera aldatu daiteke, edo alderantziz.

Autonomia handia da.

Chevrolet Aveoren kasuan, esaterako, 1.200 kilometro aurreztu ditzakezu. Ezaugarriek berberak izaten jarraitzen dute, eta bermea 3 urtekoa edota 100.000 kilometrokoa da



## SAAB BERRIA IRITSI DA

Abuztuaz geroztik, Koenigsegg Group taldearen kontrolapean gelditu da Saab. Talde horrek industria alorreko inbertsioekin zerikusia dauka, eta bertako kide Koenigsegg Automotive AB autogile suediarra ere bada, goi mailako deportiboak egiten dituen.



Koenigseggek izaera berria ekarri dio Saab erakundeari. Aukera berri mordoak eskainiko dizkio aurrerantzean. Negozio plan berria garatu du Saabek, etorkizuneko oinarriak ezartzeko.



Markaren enbaxadorerik onena, gainera, Saab 9-5 berria izango da. Diseinu eskandinaviarra, teknologia aurreratuena eta Saab XWD trakzio erabatekoa elkartzen ditu. Frankfurtoko Nazioarteko Automobil Erakusketan, Saab 9-5 berria aurkeztean, bertaratutakoek baikortasuna berreskuratzen zuten.



**GIAUTO OPEL**

ELGOIBAR - BERGARA - ARPASATE  
OLABERRIA - ANCIETA (Tolosa)  
Tel. 902 345 123  
www.giauto.es  
clientes@giauto.es

**MENDIAUTO HYUNDAI**

EL GOIBAR - DONOSTIA - IFUIN  
LAGARTE - TOLOSA - LAGARTE  
Tel. 902 345 205  
www.mendiauto.com  
hyundai@mendiauto.com

**GIAUTO CHEVROLET**

ELGOIBAR - OLABERRIA  
Tel. 902 345 205  
www.net-chevrolet.com  
giatocliente@giauto.es

**EUSKOAUTO TOYOTA**

PASAJA - ELGOIBAR  
BERGARA - OLABERRIA  
Tel. 902 345 345  
www.euskoautotoyota.es  
ve.euskoauto@toyota.es

**GIAUTO SAAB**

BERGARA  
Tel. 943 763 347  
www.giauto.renssab.com  
cliente@giauto.es

**KM0 - SEMINUEVOS**

PASAJA - ELGOIBAR  
Tel. 902 345 123  
www.giauto.es  
v0@giauto.es

# OPEL ASTRA BERRIA: MOTOR GUZTIZ ERAGINKORRAK

Opelek motor sorta berria kaleratuko du: erabat eraginkorrak izango dira, eta kontsumo zein isurkin maila oso txikikoak. Guztira, zortzi motor izango dira, 95etik 180 cv-  
ra bitartean. Sorta honen bidez, Opelek eraginkortasuna denon eskura jarri nahi izan du.

Motor sortak sekulako ezaugarriak izan arren, kontsumo eta CO<sub>2</sub> isurtze mailak orain artekoak baino %12 txikiagoak izatea lortu du. Diesel motorrak, esaterako, lau izango dira (95tik 180 cv-ra bitartean), eta batez beste 100 kilometrotan 4,6 litro baino ez dute gastatuko. Gasolinako beste laurek, batez beste, 6,1.



ASTRA DIESEL GAMA	POTENTZIA (kW/cv)	KONTSUMO MISTOA* (l/100 km)	CO <sub>2</sub> ISURKETAK* (ziklo mistoa- g/km)
1.3 CDTI ecoFLEX (1)	70/95	4,2	109
1.7 CDTI	81/110	4,7	124
7 CDTI	92/125	4,7	124
2.0 CDTI	118/160	4,9	129

(1) 2010eko udaberritik aurrera eskuragarri.

\* Aldez aurreko datuak.

ASTRA GASOLINA GAMA	POTENTZIA (kW/cv)	KONTSUMO MISTOA* (l/100 km)	CO <sub>2</sub> ISURKETAK* (ziklo mistoa- g/km)
1.4	74/100	5,5	129
1.6	85/115	6,3	147
1.4 Turbo	103/140	5,9	139
1.6 Turbo	132/180	6,8	159

\* Aldez aurreko datuak.

## OPEL ASTRA BERRIAREN TXASISA

Opel Astraren belaualdi berriari zenbait hobekuntza ezarri dizkiote ingeniariak. Besteak beste, handi-  
goa da ardatzen arteko distantzia. Barruko espazioa, egonkortasuna eta erosotasuna handiagoak dira.

- ◆ FlexRide suspentsio moldagarria: gidatzeko hiru modu eskaintzen dizkio gidariari (Arrunta, Sport eta Tour). Gainera, etengabe egokitzen da bai gidatzeko estiloen arabera, bai bihurguneetako abiaduraren arabera.

- ◆ Ardatzen arteko distantzia handiagoa eta zabalera handiagoa: ardatzen arteko distantzia handitu egin da. Bide-zabalera handiagoa denez, dinamismoa hobetu egin da, egonkortasuna eta erabilgarritasuna eredugarria da eta. Barrutik handiagoa da, eta kanpotik irudi boteretsuagoa dauka.

- ◆ Atzeko ardatzaren diseinu inteligentea: bihurguneetan, zeharkako indarrei eusteko gai da, eta albo batera joatea saihesten du.

## OPEL ASTRA BERRIAREN DISEINUA

Linea deportiboak eta detaile dotoreak biltzen ditu Opel Astra berriak. Barrualdeak itxura berezia dauka, eksklusiboa. Kanpoko diseinuak Opelen filosofia goitik behera berriztatu du. Barrukoak, berriz, gidariaren estiloari erreparatu nahi dio.



## Hasi dira Ubitarte Buruko babes ofizialeko 99 etxebizitzetako giltzak banatzen

Etxebizitza egokitu zitzaientatik hamahiruk atzera egin dute arrazoi ezberdinengatik

**A**ste honetan hasi dira Ubitarte Buruko babes ofizialeko etxebizitzetako giltzak banatzen. Irailaren 10ean hasi ziren eskriturak sinatzen, eta aste honetan jardun dute azkenek sinatzen eta falta zaien zatia ordaintzen, giltzak jasotzeko.

Guztira, 99 etxebizitza dira. Horietatik, bat logela bakarrekoa da, 46 bi logelatakoak, eta gainerako 52ak, hirukoak. Garaje eta ganbaradunak dira denak, eta 69.300 eta 119.300 euro artean balio dute –BEZ-IVA kontuan hartu gabe–.

Etxebizitzak zozketatu zituztenetik hiru urte pasatu dira, eta denbora horretan, hamahiru lagunek atzera egin dute, Visesa Eusko Jaur-laritzaren sustapen publikorako sozietateak jakinarazi duenez. Aurrez etxebizitza propioa zutelako edota ezkonkideak etxea bazuelako egin dute atzera horietako batzuek. Izan dira, era berean, atzerria bizi direlako edota euren egoera zibila aldatu delako atzera egin dutenak ere. Hau da, bikotekidearengandik banandu eta, ondorioz, etxearen gastuei bakarrik aurre egin ezin ziotenak. Krisiak ere izan du eraginik, hala ere. Langabezia gelditu delako uko egin dio babes ofizialeko etxebizitzari beste bakarren batek.

Babes ofizialeko etxebizitzak eraiki diren ingurua urbanizatzen ari dira orain. Errotonda berria eta Ubitarte Buru kalea San Roke auzoarekin lotuko duen lur azpiko pasabidea bukatzen, hain zuzen ere. Era berean, Ubitarte Burutik Ubitarte Gainerako



igogailuaren oinarria edo estruktura eraikitzen ere ari dira. Ubitarte Gainera etxebizitzak egitea aurreikusita zegoen berez, baina, diru kontuak direla-eta, momentu honetan geldituta dago proiektu hori.



## Lojantzi taberna, Euskal Herriko Pintxo Txapelketako finalean

Gipuzkoako zortzi pintxo onenen artean aukeratu dute Lojantzi tabernakoek aurkeztutakoa –guztira 26 tabernek parte hartu zuten–, eta, horrenbestez, Euskal Herriko IV. Pintxo Txapelketako finalean izango dira Lojantzikoak, azaroaren 25ean, Donostiako Kursaal jauregian. Ion Ruiz Lojantziko sukaldariak eta Iñaki Alfajemek sortu zuten pintxoak: txerri hankak, muturrak eta berduratxoak, garbantzu irinarekin frijituak. Ion Ruiz sukaldariak azaldu du oso azkar presatatu zutela guztia: “Hamar eguneko kontua izan da dena. Pentsatu, izena eman eta pintxoak prestatu”. Presagatik edo horrelako lehiaketetan parte hartzeri ohituta ez daudelako, beharbada, akats batzuk egin zituztela onartu du Ruizek: “Aurkezpenean, batez ere”.

Gipuzkoako zortzi pintxo onenen egileek Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko pintxogilerik onenen aurka lehiatu beharko dute final handian, azaroaren 23tik 25era bitartean, Donostiako Kursaal Jauregian.



## Lekua **Herri Eskolako patioa**



Herri Eskolan 700 metro koadroko patio estalia egingo dute. Gaur egun dituzten bi kantxetako bat estali eta ikusleentzeko gunea eraikiko dituzte, besteak beste. Uztalean atera zituzten obrak lehiaketara, 699.324 euroko lizitazioarekin. Lanak hasteko epe zehatzik ez egon arren, urte amaierarako martxan egotea espero dute Udaleko arduradunek, eta ordutik, hamazortzi hilabeteko epea izango dute lanak amaitzeko. Proiektua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak (%60) eta Elgoibarko Udalak (%40) finantzatuko dute.

**Zenbakia 59.000**

Kirol Patronatuak Elgoibarko kirol instalazioetako mantenua kontratatzeko deialdia egin du. Lehiaketa irekia izango da, eta aukeraturako enpresak urtean 59.000 euro jasoko ditu lan horretarako. Bestalde, kirol instalazioetako harrera zerbitzuak kontratatzeko deialdia ere egin dute. Bi deialdi horien gaineko informazio gehiago eskuratzeko Olaizaga kiroldegira jo daiteke (943 744 415).

## Irudia **Elgoibarko jaendarrak**

Jaengo probintziako Santo Tome herriko lagun asko bizi dira Elgoibarren, eta euren jaioterriko jaien bueltan, bazkaria egiten hasi ziren orain dela bost urte. Elgoibarko bizilagunekin batera, Euskal Herriatik eta Espainiatik etorritako senide eta lagunak elkartu ziren urriaren 3an. Guztira, ehun lagun inguru bildu ziren, eta tartean, Santo Tomeko alkatea, Francisco Jimenez. Guadalquivir bailararen goialdean dago Santo Tome, Cazorlako eskualdean, eta ia 2.500 biztanle ditu.



## **IMHko 30+10 mintegia urriaren 22an izango da**

Enpresen emaitzak hobetzeko asmoz, hizkuntzak nola kudeatu azalduko dute IMHko 30+10 mintegian. Laugarren urtez jarraian egingo duten mintegia, urriaren 22an izango da aurten. Aurtengo 30+10 mintegian, Euskal Herriko hainbat erakunde garrantzitsutako ordezkariak aurkeztuko dituzten txostenez gain (Adegi, ITP, Fagor, Don Bosco, Kutxa, Caja Navarra, HPS, GFA, Emun, Elhuyar, Artez, Dualia, Doble Sentido, ...), Europako adituen ekarpenak ere izango dira; Txekiakoak (Charles University) eta Kataluniakoak (UOC).

## **Gure denda, gure poza kanpainaren zozketa**

Udaleko arduradunek jakinarazi dute joan zen astean gaizki eman zutela *Gure denda, gure poza* egitasmozko zenbaki saritua. Beraz, hauxe da bizikleta tolesgarria irabazi duen zenbakia: 22470.

## **Euskal dantzen ikastaroa**

Haritz dantza taldeak eta Inazio Bereziartua musika eskolak euskal dantzen ikastaroa antolatu dute. Urritik abendura bitartean izango dira eskolak, eta fandango eta arinarinaz gain, herri dantzak ikasteko aukera ere egongo da. Hasiberrirentzat eta ibilitakoentzat eskainiko dituzte eskolak. Urriaren 16an amaituko da izena emateko epea. Interesatuak Musika Eskolan (943 742 145) eskuratu dezakete informazio gehiago.

## **Etxeko konponketak egiteko ikastaroa**

Gaur amaituko da etxeko konponketak egiteko ikastaroan izena emateko epea. Udaleko Gazteria Sailak antolatu du, 18 urtetik gorakoentzako. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko Gazte Informazio Gunera deitu daiteke (943 257 986).

Autoak eta altzariak erosteko laguntzak ematen ari dira.

## Aprobetxatu dituzu kontsumoa sustatzeko eman dituzten diru-laguntzak?



**Ana Peralta**  
44 urte, zaintzailea

Ez. Denboraldi baterako bakarririk etorri naiz, eta ez dut aprobetxatu. Dena den, oso ondo dagoela iruditzen zait, eta krisi egoera honetatik irteten lagunduko duela uste dut. Albisteetan esandakoaren arabera, jende askok aprobetxatu du auto berria erosteko.



**Jorge Kortaberria**  
45 urte, langilea

Ez dut aprobetxatu. Laguntzak eman arren, niretzat ez da autoa edo altzariak erosteko momentu ona. Hala ere, jende askok aprobetxatu ditu laguntza horiek, eta ondo dagoela iruditzen zait, baina, bestalde, bizi dugun egoera larria ezkutatzeke modua ere bada.



**Felix Torre**  
74 urte, jubilatua

Ez, ez daukat autoa edo altzariak berriztatzeko beharrik. Gure etxean fatxada konpondu behar dugu, eta horretarako laguntzak lortu nahian gabilta. Horrelako ekintzak ondo daudela uste dut, baina askotan behar gutxien duenak aprobetxatzen ditu.



**Jose Antonio Larrañaga**  
57 urte, mekanikoa

Nik neuk ez, baina jende askok aprobetxatu du auto berria erosteko, eta ondo iruditzen zait. Laguntasuna ematea ondo etortzen da beti. Kontsumoari bultzada emanteko balio dute horrelako laguntzek. Krisi egoera honetan ona izango dela pentsatzen dut.

ESKERTZA

## SANTIAGO GARCIA BOU



*Santi maitea,  
maite zaitugunon artean  
laga duzun arrastoa  
ez dugu inoiz ahaztuko.  
Gaur faltan botatzen dugu  
zuk emandako indarra.  
Ez zaitugu sekula ahaztuko.*

*Antxon, Mikel eta Marijo.*





# Tenis eta padel ikastaroek arrakasta handia izan dute

Oraindik izena emateko aukera dute interesatuek




Aste honetan hasi dira tenis eta padel ikastaroak, 40-15 tenis elkarteak antolatuta. Elkarteko kideek azaldu dutenaren arabera, aurten arrakasta handia izan dute ikastaroek, eta iaz baino ikasle gehiagok eman dute izena. Gainera, Elgoibarko ikasleek gain inguruko herrietako jendea ere etorri dela jakinarazi dute. Ikastaroak hasita daude dagoeneko, baina oraindik lekua dagoela adierazi dute 40-15 elkartekoek. Eskolak Mintxeta eta IMHko tenis pistetan eskainiko dituzte. Tenisean jokatzeko interesatuek ondorengo telefonoetan eskuratu dezakete informazio gehiago: 696 577 872 eta 637 990 159.

## Bidaia antolatu du CD Elgoibarrek Athleticen Madeiran jokatu duen partida ikustera joateko

Athleticek azaroaren 5ean jokatu du Europa League txapelketako partida Madeirako Nacional taldearen kontra, eta CD Elgoibarrek norgehiagoka ikustera joateko bidaia antolatu du, Ecuador Bidaiek enpresarekin batera. Azaroaren 5etik 8ra izango da bidaia, eta prezioa 522 eurokoa da, partidako sarrerak barne. Interesatuek 943 747 322 telefonoan eskura dezakete informazio gehiago. Bestalde, urriaren 15ean CD Elgoibarko bazkideen batzarra izango da Kultur Etxean, 19:00etan. Taldeko arduradunek ahalik eta bazkide gehien joateko eskatu dute.

## Juan Mugerza krosaren kartel lehiaketa antolatu dute



Mintxeta Atletismo Taldeak, Elgoibarko Udalak eta Udal Kirol Patronatuak 2010eko Nazioarteko Juan Mugerza krosa iragarriko duen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu dute, estrainekoz. Lanak aurkezteko epea azaroaren 8an bukatuko da. Lehenengo saria eskuratzen duen lanak, bestalde, 300 euroko saria poltsikoratuko du. Sari horrez gain, ehun euroko akzesita emango zaio lanik onena aurkeztzen duen elgoibartarrari. Datorren urteko Mugerza krosa urtarrilaren 24an izango da.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi **3** – Zalla **1** (3. maila)  
 Zumaia **2** – Elgoibar **0** (Erreg.)  
 Elgoibar **2** – Urola **4** (Jub.)  
 Elgoibar **0** – Arrasate **0** (Kad. A.)  
 Soraluze **3** – Elgoibar **3** (Kad. B.)  
 Anaitasuna **6** – Elgoibar **2** (Inf.)  
 Elgoibar **5** – Aretxabaleta **4** (Txiki)

### ESKU PILOTA

Gipuzkoako txapelketa  
 Behar Zana **22** – Lagunak **20** (1. mailako nag.)  
 Aretxabaleta **22** – Lagunak **7** (2. mailako nag.)  
 Lagunak **19** – Aurrera Saiaz **22** (3. mailako nag.)

### PALA

Lagunak **25** – Usurbil **16**

### ARETO FUTBOLA

Inter UPV **1** – Concepto Createch **4** (Nazional B)  
 CD Debarbarrena **1** – Eskoriatza **6** (Jub.)

### ESKUBALOIA

Grupo Eibar Elg. **38** – Bera Bera **30** (Jub nes.)  
 IMH Elg. **27** – Bera Bera **11** (Kad. nes.)  
 Amenabar **24** – Alkorta Forging **25** (Sen. mut.)  
 Lauko Elg. **28** – Leizaran **10** (Cad. nes.)  
 Talleres Txapime **26** – Pneumax Elg. **40** (Cad. mut.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, **10**  
 16:00 Concepto Createch – Elorriko Buskantza

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, **10**  
 11:00 Elgoibar – Lagunak (Inf. Txiki)  
 12:30 Elgoibar – Urki (Kad. A.)  
 16:30 Haundi – Beasain (3. maila)  
 18:30 Elgoibar – Mondragon (Ohorezko jub.)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, **10**  
 19:00 Alkorta Forging – Egia (Sen. mut.)  
 17:30 Pneumax – Aloña Mendi (Kad. mut.)

### ESKU PILOTA (Ikastolan)

Berrikua, **9**  
 22:00 Lagunak – Oiarpe (2. mailako nag.)  
 23:00 Lagunak – Usurbil (1. mailako nag.)

## Errosarioko Ama Birjinaren omenezko ezpatadantza birsortuko dute aurten

Hildako bizilagunen aldeko meza egingo dute etzi

**E**guaztenetik jaietan dira Errosario kalean, eta domekara bitartean hamairka ekitaldi izango dira. Aurten, Errosarioko Ama Birjinaren omenezko ezpatadantza berreskuratu dute. Garai batean urriko lehen domekero egiten zuten ezpatadantza hori, baina aspaldian galduta egon da. Etzi Haritz Euskal Dantzari Taldekoek egingo duten ezpatadantza apropos horretarako sortutakoa da, ez dago-eta jakiterik zein zen zehazki lehen Errosarioko Ama Birjinaren omenez dantzatzen zuten pieza.

Haritz dantza taldekoek San Bartolome parrokia atarian dantzatuko dute ezpatadantza, 11:30ean Errosario Kaleko hildako bizilagunen omenez egingo den mezaren ostean. Ondoren, Kultur Etxearen eta Ama Birjinaren irudiaren ondoan dantzatuko dute berriro. Ezpatadantzaz gain, bada aurten go egitarauan beste nobedaderik ere. Gaur iluntzean, 19:30ean, oliba-hezur jaurtiketako txapelketa egingo dute, Jai Alai taberna aurrean. Aurrez, 19:00etan, Mauxitxa txarangakoak kalejiran ibiliko dira buruhandiek lagunduta, eta ondoren,



21:15etik aurrera, herri-afaria izango da Kultur Etxeko sotoan.

Bihar, urtero legez, pilota partidak jokatuko dira 12:00etan, Elgoibarko Lagunak taldeak antolatuta. Ordu bete beranduago, berriz, herri kirolak ikusteko aukera izango da Nafarroa Plazan, Kultur Etxe aurrean.

### Ekialde Hurbilean giroturiko bi film, Ongarriren eskutik

Donostiako Zinemaldiari eskainitako zikloaren ostean, bueltan da berriz Ongarri Zine kluba. Ekialde Hurbilean giroturiko bi filmeko ziklo labur bat eskainiko du orain. Urriaren 15ean, *Je Veux Voir* (Libano) emango dute, eta urriaren 22an, *El cumpleaños de Laila* (Palestina). Bi filmak, ohi legez, 21:30ean hasiko dira.

### Alain Ulazia mendaroarrak liburu berria argitaratu du

*Oppenheimer eta Manhattan proiektua* izenburuko liburua argitaratu du Alain Ulaziak. II. Mundu Gerraren amaierakin lotu izan duten gertaera zientifiko batekin lotura zuzena du liburua, hain justu ere, bonba atomikoa ahalik azkarren sortzea helburua zuen Manhattan proiektuarekin. Oppenheimer izan zen proiektu horren arduradun zientifikoa. Haren biografia ardatz hartuta, progresu zientifikoaren alderdi ilunenak azaleratu eta haren kritika egin du Ulaziak. Era berean, garaiko fisikari ezagunen portaera eta "eromena" ere aztertu ditu.

ESKERTZA

## JOSE ZABALETA PAGOLA



2009ko urriaren 2an hil zen.

*Zure maitasuna  
gure bihotzean*

*Zure alaitasuna  
gure artean*

*Zure zintzotasuna  
gure miresgarri  
mila esker  
gure aitxitxa  
izategatik.*

*Zure bilobak eta birtobak*





# Uxue Alberdik bigarren egin zuen zapatuan Zestoan, Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen final laurdenean

Jone Uria algortarrak irabazi zuen, eta zuzenean sailkatu da Hendaiako finalaurrekorako

**B**ertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekora zuzenean sailkatzeko puntu eta erdi eskasera gelditu zen joan zen asteburuan Uxue Alberdi elgoibartarra Zestoan. Jone Uria algortarrak lortu zituen puntu gehien lehen final laurdenean (661,5), eta horrenbestez, zuzenean sailkatu zen Hendaiako finalaurrekorako. Edozelan ere, Uxue Alberdik ere badu oraindik finalaurrekorako sailkatzeko aukera. Izan ere, beste bost bertsolariak puntuazioaren arabera sailkatuko dira lehen fase honen amaieran.

Gurutzeaga Pilotalekua jendez gainezka zela aritu ziren, zapatuan, sei bertsolariak kantuan, Inazio Usarralde gai-jartzailearen aginduetara. Guztira, 750 bat lagun bildu ziren bertan, eta adi-adi jarraitu zuten



bertsolarien jarduna. Hamabost bertso puntuagarri kantatu zituzten guztira. 8ko nagusian INEMeko langile baten paperean jarri zuten Uxue, Iñaki Gurrutxagarekin batera. Langabe ilara luzea zain lagata, egu-nero bezala, goiz-erdian, kafea hartzera ir-

teten diren langileen rola hartu zuten. Kartzelako lanean lortu zituen Uxuek puntu gehien, 144. "Eskuartearen duzu sinatu beharreko papera". Horixe jarri zieten gaia. Hiruna bertso kantatu behar izan zituzten, nahi zuten doinu eta neurrian.

## 'Nora zoaz txanogorritxu' eta 'Mundo y final' lanak eskainiko dituzte hurrengo egunotan antzokian



Azaroa bitarterako eskaintza oparoa antolatu dute Herriko Antzokian. Domekan hasiko dute sasoi berria, 16:30ean, haurrentzako *Nora zoaz, Txanogorritxu* antzezlanarekin. Bi mundu ezberdinetan gertatzen diren bi bidaien istorioa da *Nora zoaz, Txanogorritxu?*: Txanogorritxu eta otsoaren bidaien istorioa. Ipuinaren bertso aske honetan dena gertatu daiteke, eta dena gertatzen da. Txanogorritxuk otsoari aurre egin beharko dio, eta horretarako magia eta karatea baliatuko ditu. Antzezlan hau ikusteko sarrerak takilan erosi beharko dira, egunean bertan. Gaur zortzi, berriz, hilaren 16an, *Mundo y final* obra eskainiko du Ron Lala konpainiak. Gizarte burokratikoaren kritika umoretsua egiten du Ron Lalak, hogei bat ske-txetan. 22:15ean hasiko da antzezlan. Sarrerak Kutxaren bidez erosi ahal izango dira aurrez, eta takilan, egunean bertan.

### Pilar ikastetxeko jaiak, astelehenean

Urtero legez, astelehenean, urriaren 12an, ospatuko dute Pilar ikastetxekoek euren jaiak. 11:30ean meza izango dute ikastetxeko gimnasioan, eta ondoren, 12:30ean, Elgoibarko bandak kontzertua eskainiko du. Ordubete geroago, Guraso Batzordeak mokadutxoa emango die gerturatzen direnei. Ekintzetan parte hartzera deitu dituzte herritarrak Pilarrekoek.

### Edu Arrillagaren 'Sokamuturra' erakusketa

Edu Arrillagaren *Sokamuturra* argazki erakusketa jarri dute ikusgai Mutrikun, Zabiela jauregian. Sanbartolomeetan egindako 22 argazki osatzen dute erakusketa, eta urriaren 31a arte egongo da zabalik. Asteleheneetik barixakura (19:00-20:30), zapatuetan (12:00-14:00 eta 19:00-21:00) eta domeketan (12:00-14:00) ikusi ahal izango da.

**LANA**

**ESKAERA**

- Neska gaztea etxeko lanetarako, haurrak zaintzeko edo dendarri lanetarako prest. Esperientziaduna. ☎943 254 398
- Emakumea sukaldari laguntzaile lanetan, gauzez pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. ☎645 461 600
- Emakumea haurrak zaintzeko edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎648 603 029
- Neska arduratsua, etxeko lanetarako eta zaintzaile lanetarako prest. Esperientziaduna. ☎663 786 976
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, 17:00etatik 10:00etara. ☎638 344 377
- Gizonezkoa banatzaile lanetarako edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. ☎638 344 377
- Emakumea interna lan egiteko prest. ☎680 605 355
- Emakumea lan egiteko prest, lan egunetan edo aste-buruetan. ☎618 052 967

- DBHko gaztelania eta matematikako klase partikularak ematen dira. Talde txikiak. Esperientziaduna. ☎943 744 206
- Emakumea arratsalde edo gauzez lan egiteko prest. Garbitzaile lanetan esperientzia. ☎610 632 782
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Elgoibar edo inguruan. ☎686 521 598

**ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK**

**ALOKAIRUA**

- Zaldibar eta Durango aldean alokairuko etxebizitza bila nabil. ☎ 667 317 399
- Elgoibarren etxebizitza alokatu nahiko nuke, 2 logelarekin. ☎ 943 530 266
- Pisua konpartitzen da. Erdigunean. ☎ 655 742 053
- Estudio edo lokal txiki bat alokatzen da. 18 urtetik gorakoentzat. ☎ 667 838 858

**MOTORRAK ETA GARAJEAK**

- Mercedes Vito furgoneta prestatuta saltzen da. Aukera ona. ITV-a pasata. ☎ 652 727 631
- Garajea salgai, San Roken. 2-10 zenbakidun portaletako 60. zenbakia. ☎ 676 719 705

**BESTELAKOAK**

- Etxez etxe ordenagailuak konpontzen ditut. Prezio onean. ☎ 630 580 390
- Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegainen, geltoki parean), Eibarko beste batekin aldatuko nuke. 70 metro koadro, bi logela, egongela, sukaldia, kumina eta trasteroa. Garajea. ☎ 659 381 317
- Negozioa traspasoan, merkatu plazan ☎ 671 976 028

**OHARRA:**

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

**MODULOAK**

Lana / Bestelakoak	Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
<i>Astebete : 5 euro</i>	<i>Astebete : 10 euro</i>
<i>2 aste : 8 euro</i>	<i>2 aste : 17 euro</i>
<i>3 aste : 10 euro</i>	<i>3 aste : 25 euro</i>



**Hizkuntza-Kudeaketa enpresan**

Inskripzioa (beharrezkoa):  
www.imh.es - imh@imh.es  
Telefona 943 74 41 32  
IMH, Azkue Auzoa 1 - Elgoibar

Zertan arituko dira txekiar 1, katalan 1 eta 100 euskaldun IMHn urriaren 22ko goizean?

**Antolatzailea**  
Makina Erremintaren Institutua

**Kolaboratzaileak**  
Hizkuntza Politika Sailburuordetza  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Elgoibarko Udala  
Ahize-AEK

15 hitzaldi + mahai ingurua: aukera itzazu zureak!

**Administrazioen ikuspegia**  
EUSKO JAURLARITZA, HPS - I. Calzada  
GIPUZKOAKO F. ALDUNDIA - E.Alkorta

**Enpresarien ikuspegia**  
ADEGI - E.Zubiaurre

**Europako ikuspegia**  
UOC /ELAN.CAT - M.Strubell  
LINEE proiektuar/ Txekia - J.Nekvapil

**Multinazionalen ikuspegia**  
ITP - A.Cendoya / K.Izquierdo  
Enpresen nazioartekotzea - A.Irizar

**Hizkuntza Industrien ikuspegia**  
DUALIA - J.M. Perez

**Ingurune erdalduneko kokatutako Enpresen ikuspegia**  
DOBLE SENTIDO - I. Aranbarri  
GARBIALDI - LZiarrusta (Artez)

**Finantza etxeen ikuspegia**  
Neurgailua - KUTXA, Irizar / HPS, Aizpurua  
NAFARROAKO KUTXA - X.Erize

**Berrikuntza eta ikerketaren ikuspegia**  
EHU / IMH Mak.Errem.Sektorean ikerketa  
DON BOSCOko praktikak euskaraz  
Ahalmentzea - F.Iñarra (Elhuyar)  
FAGOR: 2 ele, 2 kanal - J.Ruiz (Emun)

Informazio gehiago: [www.imh.es](http://www.imh.es)












• Zorionak, **Aida!** Ondo pasa zure 8. urtebetetzean. Gurasoen eta Tamararen partez.



• Zorionak, **Danel,** urriaren 5ean 7 urte egin zenituelako. Etxekoen partez, muxu bat.



• Bat, bi eta hiru! Handitzen, handitzen, hasi naiz handitzen... Zorionak, **Kapi!**



• Zorionak, **Kenar,** zure urtebetetze egunean. Muxu bat, potxolo, etxekoen partez.



• Zorionak, **amumal** Etxeko guztien partez, ondo pasa! Muxu handi bat.



• Zorionak, **Garazi,** atzo 8 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen eta ahizpa Irunereren partez.



• Zorionak, **printzesa,** zure 3. urtebetetzean. Guraso, Elur, Unai eta lehengusuen partez.



• Zorionak, **Ion,** martitzenean 3 urte egin zenituelako. Ama eta aitaren partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Leire,** asteazkenean 10 urte egin zenituelako. Muxu bat etxekoen eta Aneren partez.



• Zorionak, **Ander,** astelehenean 4 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **bikotel** Azkenean iritsi da zuen eguna. Ondo pasa! Familiakoen partez.



• Zorionak, **Haizeatxori,** urriaren 12an 6 urte egingo dituelako. Familiakoak, Garazi, Ainhoa eta Nerea.

## OHARRA

**Erretratu bakarrekogurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.**  
Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu.  
**BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

**BARRE**neko erretratuak salgai!

**BARRE**n astekarian edo [www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net) atari digitalean argitaratzen diren erretratuak erosteko aukera daukazu (erretratu bakoitza 2 euro).

Nafarroa enparantza, 2 - Elgoibar - Tel.: 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

**OKINDEGIA**

**OKINDEGIA**

11 domeka **IBARRENA**  
12 astelehena **BOLINTXO**

**FARMAZIAK**

	<b>24 ORDUZ</b>
9	Fernandez
10	Yudego
11	Yudego
12	Fernandez
13	Etxeberria (Errosario)
14	Ibañez
15	Yudego
16	Etxeberria ( <i>Santa Ana</i> )

**Ibañez**  
Rekalde, 1 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 638

**Fernandez**  
Herriko enparantza 4,  
Garagarza (MENDARO)  
Tel: 943 756 142

**Zabaleta**  
Kalebarren, 9 (SORALUZE)  
Tel: 943 751 384

**INFORMAZIO  
GEHIAGO:**



Egin klik  
[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)  
atarian



**11 domeka**

**Antzerkia**  
**16:30 'Nora zoaz,  
Txanogorritxu?'**  
Deabru Beltzak taldeak  
aurkeztuko du antzezlan,  
Herriko Antzokian.

**12 astelehena**

**Pilar ikastetxeko  
jaia**  
**11:30 Meza**

Ikastetxeko gimnasioan.

**12:30 Udal Musika Bandaren  
kontzertua**

Udal Musika Bandak kontzertua  
eskainiko du, Pilar ikastetxean.  
Bost abesti eskainiko ditu:

1. *Viva la jota* (pasodoblea, Pascual Marquina)
2. *Finlandia* (poema sinfonikoa, J. Sibelius)
3. *1492, the conquest of paradise* (Vangelis)
4. *The cream of Clapton* (Selektzioa, Eric Clapton)
5. *Sierra de luna* (Aragoiko kanta, Francisco de Val). Pilar Ikastetxeari eskainiko diote azken kanta hau.

**13:30 Mokadutxoa**

Ikastetxeko Guraso Batzordeak antolatuta.

**Txirrindularitza**

**12:00 Idotorbe-San Pedrora  
igoera**

Lagun Taldeak antolatuta, txirrindulari lasterketa. Irteera, Plaza Handian.

**15 eguena**

**Batzarra**

**19:00 CD Elgoibarren batzarra**  
Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**LUDOTEKAKO EKINTZAK**

**URRIAREN 16AN  
MAGIA EMANALDIA  
LUDOTEKAN  
MARSEL MAGOAREKIN**

**5 eta 12 urte  
bitarteko umeentzat  
irekita aforoa bete arte.  
Bazkideek lehentasuna  
izango dute**

**GAZTELEKUKO EKINTZAK**

**ANIMATU**

**DOMEKA HONETAN**

**GAZTELEKUKO**

**KARAOKEAN ABESTERA!**

**18:00ETAN HASIKO GARA**

**«Enemigos públicos»**

- 9, barixakua: 22:15
- 10, zapatua: 19:00/22:15
- 11, domeka: 19:00
- 12, astelehena: 21:30

**«Je veux voir»  
(Ongarri zine-kluba)**

15, eguena: 21:30





## ERROSARIO KALEKO JAIK 2009

### 9 BARIXAKUA

17:30 Kiribilka egitasmoa

19:00 Mauxitxa

txarangaren kalejira,  
buruhandiekin

19:30 Oliba hezurren  
jaurtiketa txapelketa

21:15 Herri-afaria, Kultur  
Etxeko sotoan

### 10 ZAPATUA

12:00 Pilota partidak,  
Lagunak taldeak  
antolatuta.

13:00 Herri-kirolak

### 11 DOMEKA

11:30 Meza, hildako  
auzotarren omenez.

Bertan, Haritz dantza

taldeak Gipuzkoako  
ezpata dantza egingo du

Ondoren, Errosarioko

Ama Birjinaren  
ezpatadantza, txistulariekin

eta Haritz dantza

taldekoekin.



## Gure gomendioa

### Errosario kaleko jaiak

Asteburuan, Errosario kalean

Eguaztenean hasi ziren Errosario kaleko jaiak, Errosarioko Ama Birjinaren egunean, hain zuzen ere. Astebururako ere badaude hainbat ekintza, tartean, Haritz dantza taldeak egingo duen ezpatadantza. Gaurtik hasita, domekara arte iraungo dute jaiak.




## GIDA KOMERTZIALA 2009-2010

Gida komertziala prestatzen ari gara, zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu, deitu zenbaki honetara:

**943 743 704**

edo helbide honetara idatzi:

**barren.publi@elgoibarkoizarra.com**



## Gotzon Garate

ren lanen erakusketa

Erakusketa urriaren 9tik 23ra izango da.  
Ordutegia: 19:00-21:00 (jaiegunetan 12:00-14:00).



Antolatzaileak:



Elgoibarko Urtas



ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



ELGOIBARKO URTAS



Ondasunak Foru Auzoak

## Erretratu zaharra



1963

Aste honetako erretratu zaharra Jose Luis Odiarik lagatakoa da. 1963. urtean aterata dago Pilar ikastetxeko jolastokian. Orduan 13 urte zeuzkaten erretratuan agertzen diren mutil koskorrek. Pilar-ko Ama Birjinaren Egunaren (urriak 12) bueltan hainbat ekintza antolatzen zituzten orduan ere ikastetxean, tartean futbol txapelketa. Talde honek Elgoibarrren kamiseta zuri-gorria jantzita jokatu zuen partida hura. Jose Luis Odiarik akorduan dauka patioko zuhaitzek egiten zituztela zutoin lanak, eta atzerago zeudela kanika jokorako erabiltzen zituzten txolot edo zuloak ere. Pilarren zaharrentzako egoitza bat egingo dutela jakitean, bestalde, honako hausnarketa etorri zitzaion burura Jose Luisi: "Txikitan jolasleku zena gure pasealeku izango da zahartzaroan. Bitxia, ezta?". Bizitzaren zirkulua.

**Zutik, ezkerretik hasita:** Ramon Muruamendi-raz (†), Jose Luis Odiari; Imanol Solupe eta Asier Arriola.

**Makurtuta:** Miguel Zubigarai, Agustin Inza eta Jose Manuel Nogales.

## Gure berbak

Hiztegixa: animalixen izenak (2)

Segitxu daigun animalixen izen batzuekin:

- ◆ **BIAE, biaia:** Susara jartzen hasten den bigantxa, sei bat hilabetetik gorakoa.
- ◆ **BIDIGARRO, bidigarua:** Birigarroa, "Malviz".
- ◆ **BUITRE, buitria:** Putrea.
- ◆ **BURUBELTZ, burubeltza:** "Carbonero", txori txiki mota bat.
- ◆ **BUZTANIKARA, buztanikaria:** "Lavandera", buztana dardarka izaten duen txoria, ibai edo erreka inguruetan ibiltzen dena.
- ◆ **ELTXO, eltxua:** "Mosquito". Intsektu hegalaria, pertsoneri zitzadak egiten dizkiona.
- ◆ **EPER, eperra:** "Perdiz".
- ◆ **ERLABIXO, erlabixua:** "Avispa".
- ◆ **ERLAMIÑO, erlamifua:** "Abejorro".
- ◆ **ERLE, erlia:** "Abeja".
- ◆ **ERNARA, ernaria:** "Vencejo".
- ◆ **ESKIASO, eskiasua:** Eskilasoa, "Arrendajo".

- ◆ **EULI, eulixa:** Intsektu hegalaria, uda partean baserrietan eta pertsonak eta ganadua dauden tokietan ugaria.
- ◆ **EZKAILLU, ezkaillua:** Errekako arrain txikia, "bermejuela".
- ◆ **EZPARA, ezparia:** "Tábano".
- ◆ **FAISAN, faisana:** "Faisán".
- ◆ **FRANKOLIÑ, frankoliña:** "Chorlito real".
- ◆ **GALEPER, galeperra:** "Codorniz".
- ◆ **GARDANTXILLO, gardantxillua:** "Jilguero".
- ◆ **GARZA, garzia:** "Garza", ibai inguruetan ibiltzen den hegazti hankaluzea.
- ◆ **GAUTXORI, gautxorixa:** 1. Gaeuz ibiltzen den txoria, "chotacabras". 2. Gaeuz ibili zalea, juergazalea.
- ◆ **GIXOI, gixolia:** "Guión", galeper mota bat, ohikoa baino handixeagoa, eta gidari-lana betetzen duena.
- ◆ **GRULLA, grullia:** "Grulla". Kurrillo ere bai.

Jesus Mari Makazaga



I. URTEURRENA

## MATILDE LEJARDI GABILONDO

2008ko urriaren 9an hil zen.

"Betiko izango zaitugu gogoan"

Zure familia







# mantangorri rekin



**6 DVD**  
euskaraz

## Zinema etxean **4**

urriaren **10**etik aurrera  
larunbatetan DVD bat

1. Lagundu arraina naiz
2. Heidi 3. berriro mendian
3. Betizu eta Xangaduko misterioa
4. Olentzero eta Subilaren lapurketa
5. Urtemuga festa
6. Prop & Berta



**+ 4,90 €**

HARPIDEDUNENTZAT,  
BILDUMA OSOA **26 €**  
ESKARIA EGITEKO: 943 30 43 45,  
harpidetza@berria.info  
edo www.berria.info

Babeslea:



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURAN SAILA  
Holkanta Politikako Sailburuordetza

Aukera ezazu,  
BIZI euskaraz  
**berria**



